

Barojatarretan azkena

MARGOLARI, IKERTZAILE, IDAZLE ETA intelektualen familia bateko azken erreferentea izan da Julio Caro Baroja. Antropologiari loturik, gizon hotza izan zen izaeraz, ahula osasunez, eta jendearekiko distantzia gorde zuena. Madril eta Bera artean bizi izan zen bizitza osoan, jaiotzatik hil arte. Bihotza ere hala eduki zuen, bi herri horien artean, amak eta bi osabek -Carmen, Pio eta Ricardo Barojak- eduki zuten bezala.

Azaroaren 13an jaio zen Madrilén Julio Caro Baroja, Rafael Caro Raggio editorearen eta Carmen Barojaren semea. Txikitandik kulturaren iturritik edan zuen, eta hala hezi zuten. Garaiko Madrilgo burgesian hazia, familia berezia izan zen Caro Barojarena. Familiaren ideia liberalak, antiklerikalak eta ohiturak ez zetozen bat garaiarekin. Haurtzaroa idazle eta artisten artean pasatu zuen, beti jende helduaren artean.

Negua hotza eta luzea egiten zitzaion Julio Caro Barojari Madrilén. Uda, berriz, Pio osabak Beran erositako Itzea etxean igaro ohi zuen. Berako herriaz zituen lehen oroitzapenak

"nahasiak baina irudi atseginekoak" zirela erran izan zuen. Beran ikasi zuen irakurtzen, osabaren magalean. Stevenson, Scott, Verne, Salgari, eta batez ere, Dickens izan zituen gogoko gaztaroan. Gertutik ezagutu zituen Itzean Azorin, Valle-Inclán, Unamuno...

Madrilgo instituturik ospetsuenean egin zuen batxilerra eta unibertsitate ikasketak ere Madrilén hasi zituen. Lagun guti egin zituen garai hartan, eta irakurketa zen bere lagun ia bakarra. Bakardadeak adierazten du ongien nolakoa izan zen bere gaztaroa. Aitak larunbatero ematen zion sariarekin, eleberriak erosten zituen kioskoan. Hogei urterekin irakurgaiak zehatzago aukeratzen hasi zen, hautaketa lan handiagoa eginez.

Monarkiaren amaierarekin, Errepublikak garaian, eta Espainiako gerran, Baroja familia bazterturik egon zen. Madrilgo giro politikoa gero eta beroagoa zen, eta bizitzea gero eta zailagoa. Berako etxea aterpe ezin hobe bihurtu zen.

Unibertsitateak eskaintzen ez ziona bilatu zuen Pio osabaren bitartez.

Antropologiarako eta etnografiarako interesak Jose Migel Barandiaran eta Telesforo Aranzadi ezagutzera eraman zuen. 1930ean, hamasei urte zituela, Bizkaian izan zen indusketa lanetan. Esperientzia hura urte luzeetan errepikatu ahal izan zuen.

Urte latzak gerra garaian

Hogeitaz zituela, Madril hiri garritza eta desatsegina iruditzen zitzaion. Etsaiak lagunak baino gehiago ziren. Beran, aldiz, jendearekin harremana bertzela izan zen. Berako jendearekin izandako harremana inoiz ez zen estuegia izan, baina hauengana kultura hedatzen ahalegindu zen, baita zahartzaroan ere. Makina bat txango antolatu zituen Berako jendearekin Euskal Herriko toki anitzetara, bertako kultura, arkitektura eta antropologia erakustera. Harremana egokia zen, baina ez sakona, hala ere.

Uztailen guda hasi zenetik azaroa bitarte etxetik ia atera gabe egon zen, Itzeako liburutegi handia babesleku zuela.

Espainiako gerra hasi zenean militar garaian zegoen, 1935eko kintoa baitzen. Ama eta anaia ez zituela utziko erabakita, 1936ko udazkenean bere burua Iruñean aurkeztu zuen. Osasun pattala izaki, gerrarako ezgai izendatu zuten. Gerra garaia bere bizitzaren norabidea aldatu zuen, eta hala azaldu zuen berak urte batzuk geroago ere. Urte horiek bertze modu batera bizi izan balitu, bere bizitza bertzela izango litzatekeela erran zuen Caro Barojak.

Antzinako Historian lizentziatu zen, 1942an. Letra Fakultatean katedra laguntzaile izan zen denboraldi batez, Ikerketa Zientifikoetarako Kontseilu Gorenak beka eman zion geroago, eta Institutu Britainiarrean lantxo bat lortu zuen. 1943 eta 1956 artean gurasoak eta Ricardo eta Pio osabak hil ziren. Ama hil eta lasterrera betiko utzi zuen aspaldiko neska-laguna.

Garai horretatik aitzinera, Julio Caro Barojaren aldirik oparoena eta emankorrena hasi zen, ez bairik gabe. Garai hartan hasi zen antropologo moduan ospea lortzen. 1963an Historiako Errege Akademiako kide izendatu zuten. Euskaltzaindiko eta Bartzelonako Letra Onen akademiako kide ere izendatu zuten, eta 1995ean Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen. 1986an Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiako kide izendatu zuten, ez gorabehera gutirekin. Aurretik, 1983an Asturiasko Printzea saria jaso zuen, eta Nafarroako seme kutun izendatu zuten. 1995eko abuztuan hil zen Berako Itzea etxean.

1914 ♦ Azaroaren 13an jaio zen, Madrilén.

1930 ♦ Barandiaran eta Aranzadirekin batera, indusketa lanak egin zituen Bizkaian.

1931 ♦ Letretako fakultatean izena eman, eta unibertsitateko ikasketek ekin zion. 1942an lizentziatu zen Antzinako Historian.

1943 ♦ Etnografo moduan izena eman zioten liburuetan lehena idatzi zuen: *Los pueblos del Norte de la Península Ibérica*. Urte bat geroago argitaratu zituen *Algunos mitos españoles* eta *La vida rural en Vera de Bidasoa*.

1951 ♦ Antropologia eta Etnografia ikasketak egin zituen Estatu Batuetan.

1956 ♦ Pio Baroja osabaren heriotzarekin, familiaren pisu guztia beregan erori zen. *Los Baroja (Memorias familiares)* liburua idazteari ekin zion.

1963 ♦ Historiako Errege Akademiako kide izendatu zuten.


1982 ♦ EHUk Antropologia filosofikoko katedradun izendatu zuen.

1983 ♦ Gizarte Zientzietako Asturiasko Printzearekin saritua.

1984 ♦ Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiako hautagaitza atzera bota zioten, eta izugarriko haserre hartu zuen. 1985ean izendatu zuten akademiako kide.

1986 ♦ Bere lanen artean gorenetakoa bat idatzi zuen: *El laberinto vasco*.

1995 ♦ Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen. Abuztuan hil zen, Beran, Itzea etxean.



ARGIA

• Jon Abril •